


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %2,0 igo ziren 2005eko urtarrilean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko urtarrila, 2004ko urtarrilarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %6,8ko gehikuntza izan zuten.

2005eko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %2,0 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urtarrilerako urte arteko tasa %6,8ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*) Gehikuntza urtarrileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko urtarrilean, lan-eskuaren kostua %4,0 igo zen; lehengaien kostuak, berriz, %1,1.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %1,1 igo zen Eraikuntza eta %1,2 Obra Zibileko lehengaien kostuak. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, antzerako ibilbideak izan zituztela ikusiko dugu: eraikuntzako lehengaien kostuak %8,2 hazi ziren, eta obra zibilekoak %7,8.

Urtarrilean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako lehengaiek hauek izan zituzten: *petroliotik eratorriak* (%4,8), *ateratze-agregatuak* (%2,7), *zementu artifiziala* (%2,6), *burdina eta altzairua* (%2,3) eta *lur erreak* (%1,8) lehengaiek. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten *bulego-materiala* (%-1,1), *metalezko hoditeria* (%-1,0), *beira* (%-0,5), *egiturak eta galdaragintza* (%-0,4) eta *karea, igeltsua eta eskaioia* (%-0,1) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%41,0), *burdina eta altzairua* (%36,9), *asfalto-produktuak* (%29,6) eta *petroliotik eratorriak* (%15,5) lehengaiak. Bestalde, urte arteko prezioetan (2005eko urtarrila, 2004ko urtarrilaren gainean), murrizketak izan zituzten *beira* (%-3,6), *karea, igeltsua eta eskaola* (%-0,7), *egurra eta kortxoa* (%-0,2) eta *bulego-materiala* (%-0,1) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005eko URTARRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	117,6	2,0	6,8	2,0	
ERAIKINAK	117,6	2,0	6,9	2,0	
OBRA ZIBILA	117,9	2,2	6,4	2,2	
LEHENGAIEN KOSTUA	114,3	1,1	8,1	1,1	
ERAIKINAK	114,4	1,1	8,2	1,1	
OBRA ZIBILA	113,9	1,2	7,8	1,2	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	125,4	4,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp